

BEZEROEKIKO HARREMANA

Garrantzitsua iruditzen zaigu gure bezeroekin harreman sendoak edukitzea. Gure enpresaren eta bezeroen arteko harreman estu bat sortzeko. Horretarako, bezeroengana iritsi behar gara, baina, nola egingo dugu?

Instagrameko kontu bat sortuko dugu. Bertan, gure helbidea, telefonoa, ordutegia, prezioak eta oinarrizko informazioa jarriko dugu. Sare sozialak erabiltzea funtsezkoa da, izan ere, gaur egun ia mundu osoak du gailu elektroniko bat, eta hau ikusita, bezeroengana hurbiltzeko aukera ikaragarria dela iruditzen zaigu. Gainera, hauek bereziki gazteengandik erabiliak izaten dira, eta hau da guk bilatzen dugun bezero mota. Horretaz gain, beti egongo dira eduki berriak gure sare sozialetan, gure jarraitzaileak eguneratuta egon daitezen.

Interneten bidez ere, gure sare sozialetako informazioa aurkitzeko aukera erraza eta praktikoa izango dute. Adibidez, gure telefono zenbakia. Hau 21:00ak arte egongo da erabilgarri. Guretzat, gure bezeroak oso garrantzitsuak direlako, eta beti laguntzeko prest egongo garelako. Badakigu askotan ikasle askok gauean ikasten dutela, egunean zehar denborarik izan ez dutelako. Kasu hauetan, ikasleek deitu egin beharko lukete, modu honetara, guri denboraz aurre jakinarazteko, eta guk, norbait beraien orduz lanean jartzeko.

Eta tradizionalagoak diren bezeroentzat ere, beste aukera bat izango dugu. Ofizina desberdinak izango ditu, bertan pertsona batekin aurrez aurre hitz egiteko aukera izateko. Honela, modu pertsonalagoan hitz egiteko aukera izango dute eta laguntza behar duten kasuetan, gure langileak beti prest egongo dira, bezeroen arazoak konpontzeko.